



*Gela irekia*

## **Agintzekotan... agindu ondo!**

*B. Barandiaran/ M.G. Larrinaga/  
M.K. Agirregabiria*

*Edozein hizkuntza ikasteen ezinbestekoak dira errakuntzak. Gainera beti-beti ez da erraza izaten hauen nondikakoa zehaztea. Gehienetan ikasi den araua jeneralizatu egiten da, horixe baita normalena. Baliteke, ordea, kasuren batean kale egitea, erregela jeneralak "salbuespen" bat duelako. Horixe gertatzen da aginterarekin ere, 3. pertsonari dagokionean. Artikuluak aipaturiko errakuntza ekidin eta zuzentzeko zenbait baliabide eskaintzen du.*

- Manex, ekar itzazu liburuak!
- *Ekar ditzala* Beñatek!

Azpimarratutako egituraren ordez, gero eta sarriago entzuten ditugu honelakoak:

- Manex, ekar itzazu liburuak!
- \**Ekartzeko* Beñatek!

Ikasleak dagoeneko ikasia du zehar agindua *-tzeko* nominalizazioaz egin ohi dugula:

- Itziar, *zoaz* etxera! (Itziar, ¡vete a casa! (*Agindu zuzena*))
- Itziar, *joateko* etxera! (Itziar, ¡que vayas a casa!) (*Zehar-agindua*))

Baina arau hori ez da betetzen zehar-agindu hori 3. pertsonari dagokionean:

- Martín, *zoaz* etxera! (Martín, ¡vete a casa!) (*Agindu zuzena*))

- **\*\*Joateko Markel!** (*jQue* veya Markel!) (Zehar-agindua)  
 (“Doala/Joan dadila Markel!” esan beharrean.)

**Maila** 7. urratsetik gora.

**Helburua** Ariketa hauen helburua aipatutako errakuntza ekiditea da, edota, gertatu bada, zuzentzeko bidea jartzea.

**Materiala** Proposatzen den materiala ohizko ariketa analitiko osatua dago:

a. *Bete hutsuneok* (ikus .1)

b. *Itzuli esaldiok* (ikus .2)

c. *Erruak zuzen* (ikus .3)

d. *“A” fitxa emanik “B” fitxa asmatu*

Hemen, txarteltxo bidez egitea proposatzen bada ere, ikus dezala irakasle bakoitzak ariketa nola bidera dezakeen. (ikus .4)

e. *“B” fitxa emanda “A” fitxa asmatu*

Ariketa honen prozedura “d” ariketarena bezalakoa da. (ikus .5)

f. *Bapateko itzulpenak*

Hizkuntz forma hau lantzen den egunetan zehar, tarteka-marteka, ikasleei esaldi batzuen bapateko itzulpena eskatuko zaie, automatismoa lortzeko bide bezala. (ikus .6)

g. *Esaldia emanda, testuingurua asmatu*

Honako hau ere txarteltxo bidez egin daiteke. Ikasleei esaldi bana proposatuko zaie, testuinguru egokian koka dezaten. (ikus .7)

h. *Aginduak eman*

Klasean zehar, tarteka, honelakoak egin daitezke:

*Irakasleak:* Aitor, altxa zaitez!

*Irakasleak:* Martintxo, zer eskatu diot Aitorri?

*Martintxok:* Altxatzeko (Altxa dadila) eskatu diozu.

*Aitorrek:* Zergatik beti ni? Altxa dadila Julen!

**Prozedura** \* Gardengailuaren bidez bi testu aurkeztu ikasleei, bata zuzen dagoena  
*Aurkeztu* eta bestea ez. (ikus .8)

\* Ikasleek konpara ditzatela testuok.

\* Zatika-zatika aztertu eta irakasleak errakuntzaz ohartaraziko ditu ikasleak.

\* Ondoren, taldeka edo, antzeko egoerak asma eta antzez ditzatela.

**Landu** Arestian aipatutako ariketa analitiko bidez. (ikus .1, .2, .3, .4, .5, .6, .7, eta h)

Irakasleak berak erabaki beharko du, taldearen premien arabera, zein ariketa gerta daitekeen onuragarrien eta zenbat denbora eskaini berauei.

.1:  
Bete itzazu hutsuneok

- 1 Nahi badu, etor \_\_\_\_\_ gurekin.
- 2 Niri sinisten ez badidate, irakur \_\_\_\_\_ egunkaria.
- 3 Ez badute arazorik izan nahi, joan \_\_\_\_\_ hemendik.
- 4 Kotxea gustatzen ez bazaio eta behar ez badu, sal \_\_\_\_\_ niri.
- 5 Egin nahi duenak egin \_\_\_\_\_!

.2:  
Itzul itzazu esaldiok

- 1 Mi madre me ha dicho que haga la comida.
- 2 Llévanos al aeropuerto y si tu madre está preparada que venga con nosotros.
- 3 ¿Que quiere hacer los deberes en casa? Pues, que los haga, si no es más que eso.
- 4 ¡Que te vayas, si no quieres que me enfade!

.3:  
Erruak zuzen (behar denean)

- 1 Ez dutela ezer egin nahi? Bada, etxean geratzeko.
- 2 Gaixorik badaude, joateko sendagilearengana.
- 3 5etako autobusa hartu nahi al dute? Bada, mugi daitezela; bestela jai dute!
- 4 Matrikula egin behar badute, betetzeko fitxa hau.

.4:  
"A" fitxa emanik "B" fitxa asmatu

- A 

EZ DUELA KALERA JOAN NAHI? BADA .....
---------------------------------------
- B 

.....
-------
- A 

LIBURUA GALDU BAZAIO .....
----------------------------
- A 

URDURI DAUDENEK.....
----------------------

.5:  
"B" fitxa emanda "A"  
fitxa asmatu

B

....., EROS DEZALA BERRIA!

A

.....

B

....., GARBI DIEZADATELA!

B

....., EGON DAITEZELA!

.6:  
Bapateko itzulpenak

- 1 ¡Te he dicho que te calles!
- 2 ¡Que se callen!
- 3 ¡Te he dicho que me des el libro!
- 4 ¡Que me des el libro!
- 5 ¡Que los tires!
- 6 ¡Que te lo tiren!
- 7 ¡Que os calléis!
- 8 ¡Que se callen!
- 9 ¡Que escribas la carta!
- 10 ¡Que escriban la carta!

.7:  
Esaldia emanda  
testuingurua asmatu

EZ DUTELA LANIK EGIN NAHI? BADA, EZ DEZATELA EGIN,  
BAINA GERO EZ DIEZADATELA NIRI LAGUNTZARIK ESKA!

EZ DUELA ESNEA EDAN NAHI? BADA, EDAN DEZALA  
PATTARRA, EA HILTZEN DEN.

EZ DUELA SARTU NAHI? BADA, GERA DADILA  
KANPOAN! DAMUTUKO ZAIO.

.8

- a. Amak kalerako asmoa dauka eta denbora aldetik larri dabil. Maite jadanik prest dago, baina Kepa ez da inon ageri.

Ama           –  Esaiozu Kepari *etortzeko!*  
                  (Maite Keparen bila joan eta...)

- Maite* – Kepa, amak *joateko* dio.
- Kepa* – Nik ez dut amonaren etxera joan nahi.
- Maite* – Ama, Kepak ez omen du etorri nahi.
- Ama* – Ez duela nahi? *Etor dadila (datorrela)* oraintxe bertan, berotu on bat hartu nahi ez badu!
- Maite* – Ama, baina biharko azterketarako ikasi beharra omen dauka!
- Ama* – *Gera dadila* orduan, eta *egin ditzala* ondo egin beharrekoak, bestela...  
(Eta... Maitek, irribarre maltzur batez...)
- Maite* – Kepa, amak etxean *geratzeko* esan du, baina ikasten hasi aurretik garajea *garbitzeko*.
- Kepa* – Ez al zizun zuri esan aitak garajea *garbitzeko*?
- Maite* – Je, je, ... gero arte!

b. Amak kalerako asmoa dauka eta denbora aldetik larri dabil. Maite jadanik prest dago, baina Kepa ez da inon ageri.

- Ama* – Ezaiozu Kepari *etortzeko!*  
(Maite Keparen bila joan eta...)
- Maite* – Kepa, amak *joateko* dio.
- Kepa* – Nik ez dut amonaren etxera joan nahi.
- Maite* – Ama, Kepak ez omen du etorri nahi.
- Ama* – Ez duela nahi? *Etortzeko* oraintxe bertan, berotu on bat hartu nahi ez badu!
- Maite* – Ama, baina biharko azterketarako ikasi beharra omen dauka!
- Ama* – *Geratzeko* orduan, eta *egiteko* ondo egin beharrekoak, bestela...  
(Eta... Maitek, irribarre maltzur batez...)
- Maite* – Kepa, amak *geratzeko* esan du, baina ikasten hasi aurretik garajea *garbitzeko*.
- Kepa* – Ez al zizun zuri esan aitak garajea *garbitzeko*?
- Maite* – Je, je,... gero arte!
-